


UEUren udazkeneko ikastaroen eskaintza

On-line, Eibar, Gasteiz, Iruñea. 2015



Udako Euskal Unibertsitatea
www.ueu.eus



On-line eskaintza

- Euskal Herriko ekonomia eta gizartea aztertzeko lanabesak. GIS librea.
- Euskal Mitologia: kultura ondarea.
- Euskararen lehentasuna eta hizkuntza prebentzioaren ikuspegia Euskal Herriko marko juridikoetan (MOOC).
- HTML5 estandarra sakontzen (MOOC).
- Moodle-ren erabilera aurreratua.
- R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan.
- Sormenerako hezkuntza, artea esperimendatuz.

Ikasgelako eskaintza

- Biolentzia, bakea eta elkarbizitza: hausnarketarako aukera.
- Code.org. Programatzen ikasteko tresna baten erabilera eta lokalizazioa.
- Eskola libre eta demokratikoak (II): askapenerako pedagogia baten oinarriak.
- Euskararen historian barna: uste dugunetik dakigunera (Mintegia).
- Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak.
- Haur-psikologia: gaurko haurrak etorkizuneko helduak.
- Itzultzailea izatetik, posteditore izatera.
- Kontzentrazioa eskolan.
- Nerabeekiko lana irakaskuntzan.
- Raspberry Pi tailerra: irakaskuntzarako baliabide berria.
- Sare sozialetan murgiltzen: nondik hasi?

Euskal Herriko ekonomia eta gizartea aztertzeko lanabesak. GIS librea

Helburuak

- GIS tresnekin oinarritzko azterketak egitea.
- Análisi espazialerako QGIS software libreko aplikazioaren euskarazko bertsioa erabiltzen ikastea.
- Azterketak egiteko sareko baliabideen erabileran trebatzea.
- Euskal Herriko análisis espazialak egiten ikastea eta informazioa lurraldearen gainean adieraztea.

Nori zuzendua

Analisi sozioekonomikoak egin beharrean diren ikasle, ikertzaile eta profesionalei, zein soziologoei, geografoei, ekonomialariei, kazetariei...

Irakaslea

Mikel Ayestaran Olano. Geodesia eta Kartografian goi-mailako ingeniaria. Gaindegiko teknikaria.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 29tik azaroaren 26ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 140,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Euskal Mitologia: kultura ondarea

Helburuak

- Mito eta mitologiaren koherentzia aztertea.
- Pertsonaiak, jeinuak eta haien arteko harremanak ezagutzea.
- Balio sinbolikoa jorratzea.
- Oinarritzko mitoak antzematea.

Nori zuzendua

Orokorki kultura ondarean eta bereziki euskal mitologian interesa duen orori.

Irakaslea

Ixabel Millet. Kontalaria, idazlea eta formatzailea. Bi'Arte elkarteko zuzendaria. UEUko kidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 20 orduko ikastaroa.
- Data: urriaren 21etik azaroaren 25era.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30
- Matrikula-prezioa: 140 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Euskararen lehentasuna eta hizkuntza prebentzioaren ikuspegia Euskal Herriko marko juridikoetan. (MOOC)

Helburuak

- Euskara berezko hizkuntza duten lurraldeetan euskarari aitortu zaion erregimen juridikoaz hausnarketa egitea.
- Euskarari lehentasuna eskaintze aldera, muga juridikoak identifikatu eta horiez hausnartzea.
- Ekologiaren ikuspegia hizkuntzetara ekarri eta ingurumena zein naturguneak babesteko dauden printzipio eta teknika juridikoek hizkuntzak biziberritzeko eta arnasguneak babesteko izan dezaketen balizko aplikazioaz gogoeta egitea.

Nori zuzendua


Gaian interesa daukan edonori.

Irakasleak

Iñigo Urrutia, UPV/EHUko irakaslea. Eneritz Zabaleta, UPPAko irakaslea. Itsaso Olaizola, Kutxa Ekogunea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 19tik azaroaren 22ra.
- On-line.
- Matrikula-prezioa: Doan. [Informazioa eta matrikula.](#)



HTML5 estandarra sakontzen. (MOOC)

Helburuak

- HTML5 ezagutu eta erabiltzen ikastea.
- JavaScripten ezagutza sendotu eta aplikazio aurreratuak egiten ikastea.

Nori zuzendua

[HTML5 \(I\)](#) ikastaroa egin duten ikasleentzako pentsatutako ikastaroa da.

Hala ere, **interesa daukan edonork** eman dezake izena, baina **JavaScripten gutxieneko ezagutza** behar da eta hori egiaztatu ahal izateko, **test bat** prestatu dugu.

Irakasleak

Juanan Pereira, Informatikan doktorea, UPV/EHUko irakaslea, Euskalbar, Babelium eta DiarioLinux proiektuen sortzailea, UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 26tik azaroaren 22ra.
- On-line.
- Matrikula-prezioa: Doan. [Informazioa eta matrikula.](#)

Moodle-ren erabilera aurreratua

Helburuak

- Moodle plataformaren oinarri pedagogikoak ezagutzea.
- Birtualitatean erabili beharreko estrategia didaktikoez hausnarketa egitea.
- Moodle-k ikastaroak sortzeko eskaintzen dituen tresnak erabiltzea.
- Parte-hartzaileei Moodle modu autonomoan erabiltzen ikasi ahal izateko baliabideak eskaintzea

Nori zuzendua

Moodle-ren oinarriko ezagutza duten irakasleei (hezkuntza-testuinguru guztietakoak).

Irakasleak

Abel Camacho. Euskal Filologian lizentziatua. UEUKo kidea.
Pedro Lonbide. Psikopedagogian lizentziatua. Santurtziko Udal Euskaltegiko zuzendaria.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 14tik azaroaren 18ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio
- Ikasgelako saioen ordutegia: 17:30-19:30.
- Matrikula-prezioa: 175,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan

Helburuak

- Oinarrizko kontzeptu estatistikoak maneiatzea.
- Ingurumen Zientzietan estatistika lantzeko R software askearen oinarrizko erabilera ikastea.
- Etorkizunerako R softwarearen ikasketa autodidakta estimulatzea.

Nori zuzendua

Natur Zientzietako alorretan tratamendu estatistikoak behar izaten dituen edonori zuzendua. R softwarearen erabileran hasiberria denari zuzendua.

Irakasleak

Aitor Larrañaga Arrizabalaga. Ekologian doktorea, UPV/EHUko irakaslea Ekologia arloan. UEUKidea.

Iñaki Odriozola Larrañaga. Biologian doktoregoia UPV/EHUn. UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Datak: urriaren 17tik azaroaren 14ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio.
- Ikasgelako lehenengo saioaren ordutegia: 9:30-17:00.
- Matrikula-prezioa: 175,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Sormenerako Hezkuntza, Artea esperimentatuz

Helburuak

- Sormena lantzea, bakoitzak bere baitan dituen baliabideak kontuan hartuta.
- Artea eta esperimentazioa sormen baliabide bezala bultzatzea.
- Sormenaren eta artisten arteko erlazioa haurren ingurunean ezagutzea.
- Sormen ahalmenaren inguruko mitoeikin apurtzea.

Nori zuzendua

Irakasleei: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Helduen Hezkuntza. Begiraleei, monitoreei, gurasoei, etab.

Irakaslea

Bittor Camara Hierro. Arte Ederretan lizentziatua, Diseinu Grafikoan diplomatua eta Marrazketa espezialitateko irakaslea DBH eta Batxilergoan.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 25 orduko ikastaroa.
- Datak: azaroaren 7tik abenduaren 12ra.
- On-line eta ikasgelako bi saio
- Matrikula-prezioa: 175,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Ikasgela

Biolentzia, bakea eta elkarbizitza: hausnarketarako aukera

Helburuak

- Biolentziaren hiru ardatz nagusiak ezagutzea.
- Bortizkeriaren ondorioez eta efektuez jabetzea.
- Autokritikari leku ematea.
- Bakearen bidea sustatzea.

Nori zuzendua

Gaiaren inguruan hausnarketa egiteko prest dagoen edonori.

Irakaslea

Miren Harizmendi Gonzalez, Soziologoa, Gestalt-transpertsional terapeuta, Gizarte Psikologian doktoregaia eta UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Gasteiz. Oihaneder Euskararen Etxea.
- Datak: azaroaren 14a eta 28a.
- Orduetgia: 9:00-13:00 / 15:00-18:00.
- Matrikula-preziora: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Code.org. Programatzen ikasteko tresna baten erabilera eta lokalizazioa

Helburuak

- Irakasleari tresna aurkeztea eta eskolan erabili ahal izateko beharrezkoak izango dituen kontzeptuak aurkeztea.
- Lan tresna hau euskaratzeko lan talde bat osatzea, denboran jarraipena izango duena.

Nori zuzendua

Irakasle, guraso edo programazioan interesa pizturik duen edozeini.

Irakaslea

Itsaso Usunariz Arcauz Informatika ingenieritzan graduatua. Lanbide Heziketako irakaslea. UEUKidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 8 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. Jaso Ikastola.
- Datak: urriaren 24a.
- Orduetgia: 9:00-14:00 / 15:30-18:30.
- Matrikula-preziora: 56,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Eskola libre eta demokratikoak (II): askapenerako pedagogia baten oinarriak

Helburuak

- Eskola alternatiboetan erabilitako metodologia zehatzago ezagutu ahal izatea.
- Adin tarte bakoitzean arlo pedagogikoan kontuan izan beharreko gakoak aztertzea. Zer eska dakioken haur bati adin batean edo bestean. Haurren garapen psikoafektiboa.
- Hezitzaile garen aldetik gure esku dauden erremintak ezagutzea, gure interbentzioa ez dakion kaltegarri izan garatzen ari den haurrari.

Nori zuzendua

Hezitzaileei, gurasoei edo heziketan interesa duen edonori.

Irakaslea

Ane Ablanedo Larrion. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua. NUPeko irakaslea. UEUKo kidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 14 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
- Datak: azaroaren 7a eta 14a.
- Orduetgia: 9:00-13:30 / 15:00-17:30
- Matrikula-preziora: 98,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Euskararen historian barna: uste dugunetik dakigunera (Mintegia)

Helburuak

Mintegi honen helburu nagusia da euskara hizkuntza gisa eta euskararen historia hobeto ezagutaraztea. Horretarako, azken hamarkada eta urteotan Euskal Filologiak eta Hizkuntzalaritzak lortutako emaitzak izango ditugu oinarri, hainbat gairen inguruko ikerketaren egungo egoera eta azken emaitzak aurkezteko.

Nori zuzendua

Gaian interesa daukan edonori.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 4 saio (hileko azken asteartean).
 - Tokia: Gasteiz. Oihaneder Euskararen Etxea.
 - Orduetgia: 18:30-20:30.
 - Matrikula-prezioa: 14,00 euro (saioko).
- [Informazioa eta matrikula.](#)

Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak

Helburuak

- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna lantzea.
- Norberaren izatearen mailak: gorputz, gogo, emozio eta egitearen arteko harremana kudeatzea.
- Zentzumenak landu eta trebatzea norberaren pertzepzioaren jabe izateko.
- Barne-lekukoa indartu eta lantzea.

Nori zuzendua

Norberaren arreta landu nahi duen orori, baita hurrekin edo gazteekin lan egiten duten horiei ere; beren lanean arreta piztea eta mantentzea beharrezko dutenei.

Irakaslea

Naiara Gorroño Viteri. Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
 - Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
 - Datak: azaroaren 7a eta 14a.
 - Orduetgia: 9:30/13:30-15:00/17:00).
 - Matrikula-prezioa: 98,00 euro.
- [Informazioa eta matrikula.](#)

Haur-psikologia: gaurko haurrak etorkizuneko helduak

Helburuak

- Giza garapenaren gakoak eta logika ezagutzea eta haurren hazkuntzaren eta helduen nortasunaren arteko harremana ulertzea.
- 0/3 urte-tartearen garrantziaz ohartaraztea.
- Hazkuntza-funtzio honetan gurasoak zein haur-eskoletako profesionalak laguntzea.
- Gurasoak laguntzea umeekiko harreman arruntan suertatzen diren eguneroko arazoan aurrean: jana, loa, ikasketak...

Nori zuzendua

0/3 urteko umeekin harremanean diharduten profesionalari. Hazkuntza-prozesuan ari diren aita-amei.

Irakaslea

Ane Ablanedo Larrion. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua. NUPeko irakaslea. UEUko kidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 15 orduko ikastaroa.
 - Tokia: Iruñea. UEUren egoitza.
 - Datak: urriaren 17a eta 24a.
 - Orduetgia: 9:30-13:30 / 15:00-18:00.
 - Matrikula-prezioa: 105,00 euro.
- [Informazioa eta matrikula](#)

Itzultzaile izatetik, posteditore izatera

Helburuak

- Itzulpen automatikoko sistemen arkitekturak eta erabiltzen dituzten baliabideak ezagutzea bere itzulpenak hobeto ulertzeko.
- Post-edizio lana probatzea eta lehen oinarriak ezartzea euskararako.
- Itzulpen automatikoaren eta post-edizioaren inguruko hausnarketa egitea kalitatearen, abilezien eta lan-ingurunearen ikuspuntutik, bai eta alde ekonomikotik ere, besteak beste.

Nori zuzendua

Itzultzaile profesionali eta itzulpengintzako ikasketak bukatu berri dituzten edo bukatzeaz dauden ikasleei zuzendua.

Irakasleak

Nora Aranberri Monasterio. Itzulpengintzan doktorea. Karlos del Olmo. *Senez* itzulpen aldizkariaren zuzendaria. Ane Lopez. Itzultzaile autonomoa.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 47 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren egoitza.
- Datak: urriaren 15etik abenduaren 3ra.
- Orduetgia: 17:00-19:30.
- Matrikula-prezioa: 210,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Kontzentrazioa eskolan

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitzen, lasaitzen, indartzen, energia harmonikoki mugitzen, adimena lasaitzen eta kontzentratzen ikastea.
- Arnasketak nerbio-sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardun eta teknika hauek behar diren momentuetan erabiltzen ikastea.
- Emozioak gorputz fisiko-energetikotik askatzen ikastea.
- Adimena lasaitzen eta kontzentratzeko teknikak ikastea, ikasleekin landu ahal izateko.

Nori zuzendua

Irakasle, hezitzaile, begirale, gurasoei...

Irakaslea

Marina Pintos Martikorena. Pianoan lizentziatua. Yogako irakasle formakuntza. Piano, musika eta yogako irakaslea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 15 orduko ikastaroa.
- Tokia: Iruñea. UEUren egoitza
- Datak: urriaren 26tik azaroaren 30era.
- Orduetgia: 17:30-20:00
- Matrikula-prezioa: 105,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Nerabeekiko lana irakaskuntzan

Helburuak

- Hezitzaile garen aldetik, hezkuntza-sistema eta gure funtzioen gainean hausnarketa bultzatzea.
- Nerabezaroaren gakoak ezagututa, ikasleekiko harremana, gelako giroa eta geure lana errazago eta aberasgarriago egitea.
- Institutuetako geletako bizitza hobetzea. Berdin guretzat nola ikasleentzat, biak ala biak "biktimak".

Nori zuzendua

Gurasoei, hezitzaileei, irakasleei.

Irakaslea

Ane Ablanado Larrion. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua. NUPEko irakaslea. UEUko kidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 14 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren Ikastetxe Nagusia.
- Datak: azaroaren 21a eta 28a (larunbatak).
- Orduetgia: 9:30/13:30 – 15:00/18:00).
- Matrikula-prezioa: 98,00 euro. [Informazioa eta matrikula](#)

Raspberry Pi tailerra: irakaskuntzarako baliabide berria

Helburuak

- Raspberry Pi tresna ezagutzea, muntatzea, konfiguratzeko eta programatzeko hasteko.
- Tresna erabiliz, proiektu txiki bat egitea.
- Lankidetzaren sustatzea arlo honetan.

Nori zuzendua

IKT arloko zein elektronikariko irakasle, profesional eta zaleei. Linux sistemaren ezagutza minimo batzuek laguntzen dute, baina ez dira derrigorrezkoak.

Irakasleak

Ibai Gurrutxaga. UPV/EHUko irakaslea/ikertzailea. Saretan aditua. Iñaki Alegria. UPV/EHUko irakaslea/ikertzailea. UEUKidea. Linux sisteman aditua. Josu Jugo. UPV/EHUko irakaslea/ikertzailea. Elektronikariko aditua.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 12 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren Ikastetxe Nagusia.
- Datak: urriaren 19a, 20a, 26a eta 27a.
- Orduetgia: 17:00/20:00
- Matrikula-prezioa: 84,00 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Sare sozialetan murgiltzen: nondik hasi?

Helburuak

Batez ere sare sozialak lan munduan zelan erabili eta eman beharreko lehen pausoak zeintzuk diren irakastea litzateke helburu nagusia, hau da, erakunde baten zein ekintzaile baten enpresa berria sare sozialetan nola barneratu. Nola barneratu azaltzeaz aparte, erabilera ona egiten ere irakatsiko zaie ikasleei, irudia nola zaindu (korporatibismoa) eta pribatutasuna nola kudeatu.

Nori zuzendua

Batez ere beren lanerako sare sozialak behar dituztenei bideratuta, ekintzaile zein langileei.

Irakaslea

Iraitz Madariaga Ituarte. Kazetaritzan lizentziatua, komunikazioan aditua. UEUko kidea.

Ikastaroaren ezaugarriak

- 10 orduko ikastaroa.
- Tokia: Eibar. UEUren Ikastetxe Nagusia.
- Datak: urriaren 24a eta 31.
- Orduetgia: 9:30-14:30
- Matrikula-prezioa: 70 euro. [Informazioa eta matrikula.](#)

Argibideak

Matrikulazioa

Irailaren 7an irekiko da eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da.

Matrikulazioa UEUren webgunetik: www.ueu.eus

UEUren egoitzetan egin daiteke:

- Eibar,
- Bilbo,
- Iruñea.

Matrikula-prezioak

Matrikula-prezio murriztua izango dute:

- ikasle, langabe eta erretiratuek (% 10eko beherapena)
- UEUkideek (% 25eko beherapena).

Diru-laguntzak

Diru-laguntzak on-line ikastaroetan eta Ikastetxe Nagusiko ikastaroetan matrikulatzen diren gipuzkoarrentzat. Ikus argibideak webgunean.

Hainbat udalek beren herritarrei diru-laguntzak ematen dizkiete. Ikusi zerrenda gure webgunean eta galdetu zure udalean.

Ikastaro homologatuak

Ikastaroen homologaziorako eskaera egin dugu Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan. Erantzuna jasotakoan webgunean jakinaraziko dugu.

Argibideak

UEU - Udako Euskal Unibertsitatea
Isasi-Markeskhoa Jauretzea
Eibar
tfnoa: 943 82 14 26
markeskhoa@ueu.eus
Baratzeetako zeharkalea, 2.
Iruñea
tfnoa: 948 36 25 63
nafarroa@ueu.eus

www.ueu.eus

BABESLEAK:

